

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Aiarako Udalaren 2020ko maiatzaren 21eko soko bilkurako erabakiaren laburpena, zeinaren bidez onesten baitira, COVID-19 koronabirusaren bilakaeraren ondoriozko eragin ekonomikoa arintzeko, Aiarako udalerriko pertsona, familia, autonomo, enpresa txiki eta mikroenpresentzako dirulaguntzak emateko premiazko deialdia arautuko duten oinarri orokorrak

BDNS (identifikatzailea): 507406

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3 b) eta 20.8 a) artikuluetan ezarritakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena; testu osoa Dirulaguntzen Estatuko Datu Basean kontsultatu daiteke: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

Lehenengoa: onuradunak

Dirulaguntza hori honako hauek eskatu ahal izango dituzte: Aiarako udalerriko norbanakoek, familia unitateek, autonomoek, enpresa txikiek eta mikroenpresek, baldin eta oinarrietan zehaztutako betekizunak betetzen badituzte.

Bigarrena: xedea

Aiarako Udalak, herritarrengandik hurbilen den administrazioa izanik eta herriko familia, autonomo, enpresa txiki eta mikroenpresetan COVID-19ak eragindako ondorio ekonomikoa arintze eta bat-batean ekite aldera, dirulaguntza deialdi honen bidez nahi du talde horiei halako likidezia erraztea, pairatzen ari garen pandemiaren ondoriozko egoera ekonomiko zaila neurri batean arintzeko.

Hona hemen deialdi honen helburuak:

Pandemiaren ondorioz itxi behar izan dituzten saltokiek izandako diru sarrera murrizketa konpentsatzea.

Funtsezko edo ez funtsezko jarduera izan gorabehera, beren ekoizpena edo ondasun edo zerbitzu emakida, osorik edo zati batean, gelditu edo etenda izateak eragindako galera ekonomikoa konpentsatzea.

Telelana edo urrutiko hezkuntza erraztea.

Pertsona eta familia bizitza uztartzeko neurrien kostua konpentsatzea.

Lanik gabe geratu izanez gero, likidezia apur bat eskaintzea.

Hirugarrena: oinarri arautzaileak

ALHAOn argitaratuko dira, bai eta BNDSn ere.

Oinarriak eta eskaera eredia Aiarako Udalaren web orrian daude eskuragarri: www.aiarakoudala.eus.

Laugarrena: zenbatekoa

Deialdia 40.000,00 euroekin dago hornituta.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izango pertsona edo erakunde onuraduneko 2.500,00 euro baino gehiago.

Bosgarrena: eskaerak aurkezteko epea

10 egun baliodun, deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik.

Seigarrena: beste datu batzuk

Eskaeraren eranskin guztiak beteta eta oinarrietan ezarritako agiriak aurkeztu beharko dira.

Arespalditza, 2020ko martxoaren 26a

Alkate-lehendakaria

GENTZA ALAMILLO UDAETA